



## FUTBOL ETA ESKUBALOI ESKOLEN ARTEKO AKORDIOA

Dokumentu honen bitartez, futbol eta eskubaloien eskolen arteko akordioa aurkezten da. Alebin mailari dagokio, bai futbol eta bai eskubaloien eskoletan dauden taldeek partidak jolasteko garaian dituzten arazoei irtenbide bat emanaz.

Arazoa bi kirolekin partidak jolasteko egutegian datza, diputazioak egutegi berbera proposatzen baitu bi kiroleko partidak jolasteko. Adin hauetan hainbat jokalariek egon oi dira bi kirolekin parte hartzen, beraz, bietako partidak jolasteko izugarritzko zailtasunak izaten dituzte. Guzti hau errezteko eta arazoak ekiditeko asmoz, 2019-2020 denboraldian bi kiroleko ordutegiak koordinatuz elkarlanean aritu gara bi klubak, baina, hala ere, ez da nahikoa izan, guzti honek jokalariek eta familiengan stressa, errepideetan arriskua, jokalariek nahastea, kontzentrazio falta eta beste hainbat eragozpen eragiten baititu. Ondorioz, bi klubek arteko akordio hau aurkeztu eta aurrera eramatea erabaki da, esanda bezala, arazo eta eragozpen guztiei irtenbide bat emateko asmoz.

Akordio hau futbol eta eskubaloien Alebin mailakoei dagokie, lehen eta bigarren urteko Alebinei ain zuzen, eta 2020 eta 2021 urteetako lagari aplikatuko zaio.

Jokalariek bi aukera izango dituzte bi kirolak egiteko, eta bi aukera hauen artean bat aukeratu beharko dute, aukera honen konpromisoa urte guztirako izango delarik. Aukerak hauek dira:

- 1.- Bi kirolekin parte hartu eta bi kiroleko partidak jokatu nahi dituztenak.*
- 2.- Bi kirolekin parte hartu baina partidak kirol konkretu batean bakarrik jokatu nahi dituztenak.*

**KONPROMISOA DENOK DENOKIN!**



Bi aukera horiek kontutan hartuz, entrenamenduak eta partidak nola banatu aurkeztuko dira hurrengo parrafotan.

1.- Bi kiroleetan parte hartu eta bi kiroleetako partidak jokatu nahi dituztenak.

t

A.- Entrenamenduak:

Jokalariak bat edo bi entrenamendu eduki ditzake aste batean, entrenamendu kopurua bat edo bi izanik sistematika berdina eramango da.

\* **Bi entrenamenduak** kointziditzen badute bi kiroleetan, futboleko bat eta eskubaloiko bat egingo du astero jokalaria. Biak egiten dituzten haurrak, banatu egingo dira beti kopuru berdina izateko bai eskubaloiko eta bai futboleko. Horrela haur bakoitzak entrenamendu bana egingo du kirol bakoitzean eta haur kopuru berdina egongo da beti entrenamendu bakoitzean, talde bakoitzean.

Adibide bat: 8 haur badira, egun batean 4 eskubaloiko eta beste 4 futboleko egongo dira eta bigarren entrenamenduan haur hauek kirolez aldatuko dute berriz banaketa 4 eta 4 izan dadin.

\* **Entrenamendu batek** kointziditzen badu, sistema berdina aplikatuko da, jokalaria erdiek kirol bat egindo dute eta beste erdiek beste kirola. Astero aldatuko dira haurrak. Beraz, kasu honetan haurrak astean 3 entrenamendu izango ditu, 2 kirol batean eta 1 bestean eta hurrengo astean alderantziz. Horrela kasu honetan ere kirol bakoitzak entrenamendu kointziditzen duen egunean, astero haur kopuru berdina izango du.



**\*Ez badute entrenoen kointziditzen, haur bakoitzak 4 entrenamendu izango ditu astean, 2 kirol batekoak eta beste bi bestekoak.**

## B.- Partidak:

Futbol eta eskubalo partida egunen egutegia ofiziala denean, bilera bat egindo da bi klub artean. Bertan presidentek eta eskola kirola arduradunak egongo dira. Eguna, ordua eta lekua bi klub artean adostuko da.

Egutegiak aurketuzko dira bileran eta kointziditzen duten egunak kontuan hartuko dira, egun horiekin zerrenda bat egingo da eta jokariak banatu. Kointziditzen duen lehenengo partidaren egunean, jokari erdiek kirol bat egingo dute, eta beste erdiek beste kirola. Zerrenda horretako hurrengo partidaren jokariak kirola aldatuko dute.

Adibidez, 6 partidek kointziditzen badute eta 8 hurrek bi kirolak egiten badituzte, haur bakoitzak, 3 partida kirol batean eta beste 3 partida beste kirolean jokatu dituzte; 4 haur kirol batean eta beste 4ak beste kirolean egongo dira, horrela beti kopuru berdina joango da talde bakoitzarekin.

Sistema honen helburua, hurrek eta gurasoek erabakia hartu behar izatearen presioa, estresa, karreteran presaka ibiltzea, entrenatzaileraren antolakuntza egokia ezinezkoa izatea, etab. ekiditzea da.

Kontuan hartzeko bi puntu:

- Egutegia bi taldeen artean adostuko da eta haur bakoitzak berea izango du urte hasieratik.
- Haur bakoitzak kirol bateko partida jokatu du, naiz eta ordutegi aldetik posible izan biak jokatzeko.



*2.- Bi kiroletan parte hartu baina partidak kirol konkretu batean bakarrik jokatu nahi dituenak.*

Bi kiroletan parte hartu nahi badu jokalaria batek, baina partidak kirol konkretu batean bakarrik jokatu nahi baditu, entrenamenduen sistema lehen azalduta bezala segi beharko du jokalaria.

Aukera honetan, jokalaria urte hasieran abisatu beharko du klub bakoitzean, eta bi klubek izango dute jokalaria hauen zerrenda.

Jokalaria ezin izango du jokatu aukeratu ez duen kirol horretako partidarik, nahiz eta aste buru horretan libre izan beste kiroleko partida jokatzeko, hau da, partidak kirol bakar batean jokatzeko erabakita, beste kirolean entrenamenduetan bakarrik hartuko du parte.

**\*OHARRAK:**

-Haur bakoitzak urte hasieran erabaki beharko du eta komunikatu entrenatzaileari kirol bakar batean edo bietan jokatu nahi dituen partidak. Ezinbestekoa da klubek taldeen inskripzioak egiteko orduan hau jakitea, zenbat talde osa ditzaketen ere jakiteko.

-Kasu bereziak bi klubaren artean aztertuko dira eta baita hartu beharreko erabakiak ere.



➤ **INFANTILAK:**

Infantiletan kirol aukeraketa egin beharko dute. Hau ez da behin betikoa izango, bi kirol taldeek ateak irekita utziko dizkiete haur guztiei bueltatu nahi badute utzi duten kirolera, baina denboraldia bukatu egin beharko dute hitza eman duten kirol taldearekin.

Bi kirol taldeen aldetik ulertzen dugu oraindik gazteak direla eta erabakia ez dela erraza, beraz ulergarria da haurren batek atzerapausua eman nahi izatea.

Kasu bereziak bi klubaren artean aztertuko dira eta baita hartu beharreko erabakiak ere.

Zumaia Futbol Taldea.

Pulpo Eskubaloia Kluba.

2020ko Maiatzak 24.